



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Puntakoena

Emmanuel Macron-i arrazoia emanez hasiko dut zutabe hau. Azaroan el-karrizketa mamitsua egin zioten “Le Grand Continent” aldizkarian, eta ekologi-az galdetu ziotenean zera esan zuen: «Nire ustez, berotze globalaren aurkako borrokan elementu egitura-tzaileena mugikortasuna da». Baina, aldi berean, azpimarratu zuen trantsizio hori egiteko denbora behar dela, eta ohitura batzuk estigmatizatzeko tentazioa izan ohi dugula (nik ere egiten dut, nahi baino gehiago). Familia frantses bat deskribatu zuen ondoren, «azken 30 urteetan eskatu zaion guztia egin duen» familia arrunt bat:

«Esan zitzaion ‘lan bat aurkitu behar duzue’ eta lan bat aurkitu zuten; ‘etxe bat erosi behar duzue’, baina erdigunean garestiegiak zirenez, 40, 50 edo 60 kilometrora erosi zuten; ‘eredu arrakastatsua zerorren autoa izatea da’ eta bi auto erosi zituzten. Esan zitzaion ‘familia duina izateko, seme-alabak behar


bezala hazi behar dira, kontserbatorio-ra joan behar dute, eta gero kirol-kluberak; beraz, larunbatero lau bidaia egiten zituzten seme-alabak eramateko. Familia honi orain esaten badiozu ‘kutsatzaile handiak zarete, gaizki isolatu-tako etxea daukazue; 80, 100, 150 kilometro egiten dituzue autoz’, zera esango dute: ‘Baina dena ondo egin dut! Eta Frantziako Gobernuak, hamar-kadetari zehar, diesela erosteko eskatu zidanean ere, erosi egin nuen!’».

Egia da norberaren jarrerak garrantzi handia duela, eta badela alternati-bak izanda ere autoari muzin egin nahi ez dion jendea. Baina instituzio-ak dira, beren lege, arau, neurri, gidallerro eta proiektuekin gizarteari bide bat ala beste seinalatzen diotenak. Galdera orduan hau da: non daude gure instituzioak, orain?

Ekain Jimenez arkitektoari irakurri nion duela ez asko Arabako Future Mobility Lab delakoaren kasua (la-borategi biziduna, berrikuntza-kluste-

rra, berrikuntza katalizatzailea, beste hainbat hitz ponposo eta guzti), non eta hiritik 8 kilometrora dagoen poli-gono monofuntzional batean eraiki-ko dena. Mugikortasun jasangarria sustatzeko adibide eredugarria.

Gipuzkoak ere badu bere zera pro-pioa, ezin gutxiago izan: Mubil Elec-tromobility Center, «etorkizuneko mugikortasunaren Europako azpiegi-tura puntakoena» izateko bokazioa duena, Markel Olano ahaldu nagusiaren hitzetan. Irudiak ikusi, azalpe-nak irakurri eta pixkanaka ulertu dut: «industria eta berrikuntza sarea», «berrikuntza-gaitasuna maximiza-tu»... Antza, Gipuzkoan ere txakurrak oinutsik. Mugikortasuna aipatzen du, baina bateriak ekoizteaz ari da. Midas erregea gipuzkoar erara: urre ez, bai-na makina-erreminta bihur dezakegu ukitzen dugun guztia, «etorkizuneko mugikortasunaren Europako azpiegi-tura puntakoenengandik» gero eta urrunago gauden bitartean. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI